



GOBERNU BATZARRA
2024.01.16

Alkatea:
Angel Martinez de Rituerto Arregi

Bertaratutako zinegotziak:
Kristina Pelaez Errazkin

Ander Figuerido Zubiria

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita lauko urtarrilaren hamaseian, 10:00etan, bigarren deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

Ez dira bertaratu:
Aitor Agirresarobe Murgi

Estitxu Kortejarena Ugarte

Goiuri Ezeiza Arandia

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontu-hartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

1. Akta hau onartzea: 2024ko urtarrilaren 9koa

2. Onartzea Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren arteko lankidetzahitzarmena, *msae* aplikazioaren erabilera doan lagatzeko, eta Autobuses Cuadra SAU enpresaren autobusak geolokalizatuta, ustiapenari laguntzeko.

3. Onartzea Orubide SARI itzultzea 2010eko ekainaren 4an eta azaroaren 11n jarri zituen bermeak; hain zuzen, «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpiesparruari lotuta hartutako konpromisoerantzuteko jarritakoak.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2024KO URTARRILAREN 9KOA

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.



2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN ETA GIPIZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, MSAE APLIKAZIOAREN ERABILERA DOAN LAGATZEKO, ETA AUTOBUSES CUADRA SAU ENPRESAREN AUTOBUSAK GEOLOKALIZATUTA, USTIAPENARI LAGUNTZEKO

AURREKARIAK

- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza (aurrerantzean, GGLA) Partzuergoko Batzar Nagusiak, 2023ko maiatzaren 25eko ohiko bileran, besteren artean, erabaki hau hartu zuen:

- Onartzea hiri-autobusak geolokalizatzeko *msae* aplikazioaren erabilera lagatzeko hitzarmena.

- 2023ko ekainaren 30ean, GGLAk Tolosako Udalean aurkeztu zuen hiri-autobusak geolokalizatzeko *msae* aplikazioaren erabilera lagatzeko hitzarmen proposamena.

AZTERKETA TEKNIKOA

2023ko abenduaren 22an ingurumen eta landa eremuko gaietako teknikariak egindako txostenean (AO20230039), besteak beste, honakoa jaso zuen:

«2. AZTERKETA TEKNIKOA

2.1. Hitzarmenaren helburua

Hitzarmen honen helburua orokorra ondorengoa da: Tolosako Udalaren eta GGLaren arteko lankidetzaren instituzionaleko esparrua ezartzea, GGLAk bere eskumen-eremuan garatu duen mSAE aplikazio informatikoa bere modalitate ez-kontributiboan erabiltzeko lagapena egin ahal izateko Udalari.



GGLA Gipuzkoako garraiobideen plangintza koordinatzen ari da, partzuergoko kideekin adostasunean, haiek baitira Gipuzkoako garraio arloko eskumenen titularrak. Horren bidez, garraioaren zerbitzu publikoaren eskaintza hobetzea da azken helburua.

Patzuergoaren helburu instituzionalak betetzeko, GGLAk mSAE aplikazioa garatu du autobusak geolokalizatuz ustiapenari laguntzeko. Aplikazioaren bidez, gidari bakoitza dagokion zerbitzuari esleitzen zaio, eta GTFS-RT eta Siri estandarra lortzeko nahikoa informazio lortzen da.

Bestalde, parte hartzen dugun erakundeon eta GGLaren lehentasunezko helburuetako bat erakundeen arteko lankidetzeta-hitzarmenak areagotzea eta baliabideak modernizatu, arrazionalizatu eta hobetu daitezzen bultzatzea da.

2.2. Hitzarmena sinatzeko eskumena

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumena du bere lurraldearen barruko mugikortasunaren eta errepideko garraiobide mekanikoen arloan, honako arau hauetan xedatutakoaren arabera: Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluan; Autonomia Erkidego Osorako erakundeon eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 10. artikuluan; garraio-arloko eskumenak eskuordetzeari buruzko uztailaren 30eko 5/1987 Lege Organikoan; eta martxoaren 5eko 46/1985 Dekretuan eta martxoaren 5eko 30/1985 Foru Dekretuan, biak lurreko garraioen arloan Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen zerbitzuak Gipuzkoako Lurralde Historikoari eskualdatzeari buruzkoak.

Tolosako Udalak, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeriaren arabera, trafikoaren, ibilgailuak aparkatzearen, mugikortasunaren eta hiri-garraio kolektiboaren arloko eskumenak betetzen ditu, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2. g) artikuluan ezarritakoaren arabera. Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 17.1.32 artikuluan aurreikusten duenez, udalerriek eskumen propioak baliatu ahal izango dituzte honako esparru material hauetan: *“Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu —motordun zein bestelako— eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko irizitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte”*. Bi Administrazioek interesa dute elkarrekin lanean jarraitzeko errepide bidezko garraio publikoko sistema integrala ezartzen, Lurraldebusen eta Tolosako Udalaren zerbitzuak bateragarriak izateko, eragindako administrazioen eskumenak kaltetu gabe.

2.3. Hitzarmenaren edukia klausulak



Hitzarmen honek hamaika klausula izango ditu.

2.4. Hitzarmenaren ondorioak

- Hitzarmen honen helburua orokorra ondorengoa da: Tolosako Udalaren eta GGLaren arteko lankidetzaren instituzionaleko esparrua ezartzea, GGLak bere eskumen-eremuan garatu duen mSAE aplikazio informatikoa bere modalitate ez-kontributiboan erabiltzeko lagapena egin ahal izateko Udalari.
- Onartzea eta sinatzea proposatzen den hitzarmen honetan, Tolosako udalak hartuko lukeen konpromisoa ondorengoa da: sistema informatikoa martxan jarri eta parametrizatzea INGARTEK enpresa garatzailearekin lankidetzan, eta haren antolakuntza sistemaren eta funtzionamenduaren ezaugarriekin bat. Halaber, Udalak konpromisoa hartuko du hiri-garraiorako zerbitzua eskaintzen duen operadoreaz besteko hirugarrenei ez lagatzeko hitzarmen honek xede duen aplikazio informazioa, ez eta aplikazioari egindako aldaketa edo hobekuntzak ere, baldin eta, aurretiaz, GGLak hartarako adostasunik ematen ez badu.
- Hitzarmen honetan bestelakorik esaten ez denez ondorioztatzen da ez duela udalarentzat obligazio ekonomikorik aurreikusten.
- Hitzarmen hau sinatuz, hobetu egiten da kudeaketa publikoa, eta aukera ematen du bitarteko eta zerbitzu publikoak batera erabiltzeko».

AZTERKETA JURIDIKOA

2024ko urtarrilaren 10ean, Idazkaritza Saileko administrazio orokorreko teknikariak egin dako txostenean, besteak beste, honako hau jaso zuen:

«TXOSTEN JURIDIKOA

Aplikatzeko den arautegia:

- 1985eko apirilaren 2ko 7 /L985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoak, 25. artikuluan xedatutakoari jarraituz, besteak beste, arlo hauetan eskumenak ditu: bide azpiegiturak, trafikoa, hiri garraioa eta mugikortasuna. Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/20L6 Legeak 17.L.32. artikuluan aurreikusten duenez, udalerriek eskumen propioak baliatu ahal izango dituzte honako eremu hauetan: "Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu -motordun zein bestelako- edo



animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzeko, kudeatzeko, sustatzeko eta diziiplina -modua zehazteko; horretarako, beharrezko baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte.

- 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 140. artikuluan adierazten du administrazio publikoek beste administrazio batzuekin elkarlanean jarduten dutela lankidetzaren printzipioaren arabera, hori ulertuta gainerako administrazio publikoekin batera jardutea xede komunak lortzeko. Eta 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzekoak, 10. Artikuluan xedatutakoaren arabera, toki administrazioak eta gainerako administrazio publikoek egokitu egin behar dituzte elkarren arteko harremanak, lankidetzaren eta koordinazio betebeharrak beteta, betiere, bakoitzari dagokion eskumen esparrua errespetatuz.

Hitzarmenak izan behar duen edukia 40/2015ko legearen 49.artikuluan dago arautua: Aurreko artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren hitzarmenek barnean hartu beharko dituzte gai hauek, gutxienez:

- a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak, eta alderdietako bakoitzak zer gaitasun juridikorekin jarduten duen.
- b) Zer eskumenetan oinarritzen den administrazio publikoaren, hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen edo unibertsitate publikoen jarduketak.
- c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduketak, lortutako emaitzen titulartasuna azalduta, hala badagokio.
- d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago; haien urtekako denbora-banaketa adierazi beharko da, bai eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziko zaiona ere, aurrekontu-legeriak xedatu duenaren arabera.
- e) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak, eta, hala badagokio, ez betetzeatik ondoriozta daitekeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.
- f) Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta



sinatzaileek beren gain hartutako konpromisoari aplikatzekoak. Mekanismo horrek ebazteko dituen hitzarmenak direla eta planteatu daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak.

g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. Arau espresurik ez badago, sinatzaileen ahobatezko erabakia beharko da hitzarmenaren edukia aldatzeko.

h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:

1.a Hitzarmenak iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.

2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.

Estatuaren Administrazio Orokorrek edo haren mendeko edo hari lotutako erakunde publikoetako batek eta zuzenbide publikoko entitateetako batek sinatutako hitzarmenen kasuan, luzapen horren berri eman beharko zaio Lankidetzaren Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoari, zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen baita.

50. artikulua honela dio:

Hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideak eta haien ondorioak.

1. Autonomia-erkidegoetako legeriak aurreikus ditzakeen berezitasunak gorabehera, hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea.

2. Gainera, Estatuaren Administrazio Orokorrek edo hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek sinatzen dituzten hitzarmenei hauek erantsi beharko zaizkie:



- a) Zerbitzu juridikoaren txostena. Ez dago txosten hori zertan eskatu hitzarmena bat badator dagokion zerbitzu juridikoak aurretiaz txostena egin dion eredu normalizatuarekin.
- b) Aplikatu beharreko araudiak ezartzen duen beste edozein txosten nahitaezko.
- c) Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren aldez aurreko baimena, hitzarmena sinatu, aldatu, luzatu eta alderdien arteko adostasunez suntsiarazteko.
- d) Administrazio publikoen artean sinatutako urte anitzeko hitzarmenek barnean hartzen badute Estatuak funtsen ekarpenak egitea beste administrazio publiko batek eskusiboki egin beharreko jarduketak finantzatzeko, eta Estatuak, bere eskumenen barruan, konpromisoak hartzen baditu hirugarrenen aurrean, Estatuak etorkizunean urteko ordainketak egiteko baldintza izango da aurrekontuetan kreditua egotea.
- e) Autonomia-erkidegoekin sinatutako administrazio arteko hitzarmenei dagokienez, Senatuari bidaliko dizkio Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak.

Onartu behar duen organua: Tokiko Gobernu Batzarra. Honela dio 2023/1707 Alkate Dekretuak, 2.5 apartaduan: "Alkatetzak eskuordetzea legeriak ematen dizkion ondorengo eskumenak Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari: Lankidetzak Hitzarmenak: Beste Administrazioekin edo pertsona fisiko eta juridikoekin lankidetzak hitzarmenak onartzea, ondoko legeen aplikazio-eremutik kanpo geratzen direnak: 9/2017 Legea, Sektore Publikoko kontratuak arautzen dituenak, eta 38/ 2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa, eta horiek garatzeko arauak"».

Adierazitako aurrekariak zein egindako azterketa teknikoa eta juridikoa ikusita, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta

ERABAKI DU



LEHENA.-Onartzea tolosako udalaren eta gipuzkoako garraioaren lurralde agintaritzaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, msae aplikazioaren erabilera doan lagatzeko, eta Autobuses Cuadra SAU enpresaren autobusak geolokalizatuta, ustiapenari laguntzeko; honako klausula hauen arabera egingo da hori:

«Lehenengoa. Hitzarmenaren xedea.

Tolosako Udalaren eta GGLaren arteko lankidetzeta instituzionaleko esparrua ezartzea da hitzarmen honen xedea, GGLak bere eskumen-eremuan garatu duen mSAE aplikazio informatikoa bere modalitate ez-kontributiboan erabiltzeko lagapena egin ahal izateko Udalari.

GGLak eta Tolosako Udalak behar den euskarria eskainiko diote elkarri aplikazioaren gorabehera teknikoak konpontzeko.

Bigarrena. Erabilera-lagapenaren edukia.

Lagatako aplikazio informatikoa Android app mugikor batek eta sortutako informazioa kudeatzeko GGLaren sistema zentral batek osatzen dute.

mSAE aplikaziorako konexioa app mugikor baten bidez egingo da.

Aplikazioaren erabiltzaileek izango dute hitzarmenak xede dituen softwarearen eta aplikazioen erabilera eta kudeaketa onaren gaineko erantzukizuna. Edonola ere, GGLak ez du izango erantzukizunik, zuzenean edo zeharka, zerbitzuaren osagaiak gaizki erabiltzeagatik edo, aplikazioaren azpiegiturarekin loturarik ez duten arrazoiak direla eta, zerbitzuaren sarbidean eta erabileran dauden gorabeherengatik sortutako kalte.galerei aurre egiteko.

Hirugarrena. Lagapenaren izaera.

GGLak Tolosako Udalari (AUTOBUSES CUADRA, SAU) lagatzen dio aplikazio informatikoaren erabilera materiala, doan, aplikazioaren gaineko titulartasuna eta jabetza intelektualaren arloko legeria aplikagarriak ematen dizkion eskubideak mantenduz.

Laugarrena. Udalaren betebeharrak.

Udalak, bere aldetik, sistema informatikoa martxan jarri eta parametrizatu beharko du, INGARTEK enpresa garatzailearekin lankidetzan, eta haren antolakuntza-sistemaren eta funtzionamenduaren ezaugarriekin bat.

Halaber, Udalak konpromisioa hartzen du hiri-garraiorako zerbitzua eskaintzen duen operadoreaz besteko hirugarrenei ez lagatzeko hitzarmena honek xede duen aplikazio informazioa, ez eta aplikazioari egindako aldaketa edo hobekuntzak ere, baldin eta, aurretiaz, GGLak hartarako adostasunik ematen ez badu.

Udalak ezingo du erabili aplikazioa, inolaz ere, hitzarmen honetan adierazi ez diren helburuekin, eta konpromisioa hartzen du aplikazioa osotasunean errespetatu, eta edozein eraldaketa, aldaketa edo eraso galarazteko.

Bosgarrena. Konpromiso komunak.



Bi aldeek konpromisoa hartzen dute hitzarmen hau garatzeko beharrezkoa izan daitekeen lankidetzaren teknikoak elkarri emateko eta komunikazio-eta lankidetzaren harreman estu eta etengabekoa izateko.

Seigarrena. 4.- Segimendu Batzordea.

Aldeen arteko harremanetan eraginkortasun handiagoa lortzeko, izaera parekideko batzorde misto bat eratuko da, alderdi bakoitzeko bi ordezkari osatua. Dagozkien organoek izendatuko dituzte ordezkari horiek.

Udaleko bi teknikari, GGLAko zuzendari nagusiak (batzordeko presidente funtzioa esleituko zaio) eta GGLAko teknikari batek osatuko dute Segimendu Batzordea.

Hitzarmen honen alderdietako baten eskariz bildu beharko da Segimendu Batzordea.

GGLAko teknikariak Segimendu Batzordearen saio bakoitzaren akta egingo du, partzuergoko zuzendari nagusiaren oniritziarekin.

Zazpigarrena.- Hitzarmen honen iraupena, eraginkortasuna eta indarraldia.

Hitzarmen honek 4 urteko iraupena izango du sinatzen denetik, eta beste 4 urtez luza daitezke, bi aldeak ados egonez gero.

Zortzigarrena.- Aldaketa.

Hitzarmen hau aldeen hitzarmen espresu bidez alda daiteke.

Bederatzigarrena.- Iraungipena.

Hitzarmen hau iraungi egingo da:

- a) Alde guztiak ados badaude.
- b) Indarraldia amaitzen bada.
- c) Udalak baliogabetu egiten badu, GGLAk bere gain hartutako betebeharretarako bat ez betetzeagatik.
- d) Udalak uko egiten badio, Udalak bere gain hartutako betebeharretako bat ez betetzeagatik.
- e) Hitzarmena baliogabe deklaritzen duen erabaki judizial bat badago.
- f) GGLA desegiten bada.

Hamargarrena.- Hitzarmenaren araubide juridikoa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta hura aplikatzean sor daitezkeen zalantzak konpondu eta hutsuneak betetzeko, 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legean xedaturikoa bete beharko da.

Hamaikagarrena.- Eskumen juridikzionala.

Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak du eskumena, instantzia bakarrean, hitzarmen hau dela-eta aurkeztutako errekursoak ebazteko, Administrazioarekiko Auzi Juridikzioa duen 29/1998 Legean xedaturikoaren arabera.



Adierazitakoarekin ados duadela adierazteko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, kudeaketa agintzeko hitzarmen hau sinatu dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean».

BIGARRENA.- Alkate-lehendakariari ahalmena ematea akordio hau aurrera eramateko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan, Gardentasun Atarian eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari.

3. ONARTZEA ORUBIDE SA-RI ITZULTZEA 2010EKO EKAINAREN 4AN ETA AZAROAREN 11N JARRI ZITUEN BERMEAK; HAIN ZUZEN, «20.1 AMAROTZ PAPER-FABRIKA» AZPIESPARRUARI LOTUTA HARTUTAKO KONPROMISOEI ERANTZUTEKO JARRITAKOAK

Bermeen zenbatekoak:	Urbanizatzeko Jarduketa Programa (UJP): 38.770,41 € Kontzertazio Hitzarmena: 216.780,00 €
Eskatzaileak:	VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI (A20306775) (ordezkaria: Carlos Quindos Fernandez)
Sarrera data:	2023/08/01 (sarrera zk. 2023-10394)
Espedienteak:	B.5.1. 20.1/2010.01 (UJP) B.5.1. 20.1/2010.03 (Kontzertazio Hitzarmena) 2020H1220003 (Egiteke dauden jardueren proiektua)

ESKU9c04b49d-b9de-451c-89b0-5e4e6a1d233b



AURREKARIAK

2010eko ekainaren 4an, Udalak Orubide SAren 38.770,41 €-ko abala jaso zuen, «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpieroemuan hartutako konpromisoei erantzuteko fidantza gisa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 158 artikuluan ezarritakoaren arabera (Hirigintzako Jarduketa-programa izapidetzeagatik).

2010eko ekainaren 7an, Gobernu Batzarrak «20.1 Parper-fabrika» azpiesparruaren Hirigintza Jarduketa Programari hasierako onespina eman zion.

2010eko azaroaren 5ean, Udalak Orubide SAren 216.780,00 €-ko abala jaso zuen, «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpieroemuan hartutako konpromisoei erantzuteko fidantza gisa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160.6 artikuluan ezarritakoaren arabera (Jarduketa-programa Hitzarmen bidez esleitzeagatik).

2014ko azaroaren 5ean, Tolosako Udalak Orubide SLren aldetik jaso zituen «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpiesparruko Urbanizazio Proiektuan jasotako obrak. Obren harrera onarpen-akta sinatuz formalizatu zen. Obren jasotze-aktan eranskin bat sartu zen egiteke zeuden lanekin.

Jasotze-datatik, jarduketak partzialki egin ziren, jasotze-aktaren eranskinean jasotako egiteke zeuden lan guztiak osatu gabe.

2016ko maiatzaren 12an, Viviendas y Suelo de Euskadi, SA – Euskadiko, Etxebizitza eta Lurra, EA (Visesa) eta Orubide SA sozietateak bat egiteko proiektu komuna Arabako Merkataritza Erregistroan gordailutu zen.

2020ko azaroaren 10ean, Nerea Juez Morgado andreak, Orubide SLren izenean, eskatu zuen Tolosako Udalak onarrezala "Tolosako Amarotz urbanizazioan egiteke dauden jarduketaren proiektua" izeneko urbanizazio-proiektua.

2021eko apirilaren 16an, 669 Alkatetza Dekretuaren bitartez, Orubide SL-k aurkeztutako proiektua onartu zen, hainbat baldintzekin.

2022ko otsailaren 28an, Agustin Larrea geologoak txostena idatzi zuen, Udalak eskatuta, Amaroazko ezpondari buruz, obrak amaitzear zirenean. Txosten horretan, ezpondaren egoera aztertzen da eta, besteak beste, arrisku-analisia egin zen.

2022ko urriaren 20an eta azaroaren 3an, Udaleko, Visesak, Lurtekeko eta Geologia eta Geoteknia Larreako teknikariak bilera egin zituzten, Udalak jasotako Larrearen txostena azaltzeko eta Amaroazko ezpondaren gaia aztertzeko.

2023ko urtarrilaren 9an, Visesak obra amaierako dokumentazioa bidali zuen.



2023ko martxoaren 16an, Igor Rebollok, Lurtekeko geologoa, txostena idatzi zuen, ezpondaren azken ikuskapenen emaitzekin.

2023ko ekainaren 16an, Agustin Larrea geologoak, Udalak kontratatuta, txostena idatzi zuen. Txosten horretan, jasotako obra amaierako dokumentazioa eta Lurtekeko txostena aztertzen ditu eta egonkortze-lanak modu egokian egin diren baloratzen du.

2023ko ekainaren 23an, 2023/1647 Alkatetza Dekretu bidez, frontoia zaharberritzeko lanak ontzat eman ziren eta ezponda egonkortzeko lanak, aldiz, bukatutzat ez ziren eman. Hainbat lan errekeritu zitzaion Visasari.

2023ko abuztuaren 1ean, Visesak egin beharreko lanen dokumentazioa igorri zuen Udalean, eskatutakoa betetzeko nahikoak direla baieztatzeko. Gainera, jarritako abalen itzulketa eskatu zuen (2010/1537 zenbakiarekin inskribatutako banku-abala, 38.770,41 eurokoa, Hirigintza Jarduketa Programaren fidantza gisa aurkeztutakoa eta 1584/2010 zenbakiarekin inskribatutako banku-abala, 216.780 eurokoa, Kontzertazio Hitzarmenaren onspenaren fidantza gisa aurkeztutakoa).

2023ko abuztuaren 29an, 2023/1993 Dekretuaren bidez, Udalak adierazi zuen Visesak bidalitako dokumentazioa egokia zela eskatutakoa gauzatzeko.

2023ko urriaren 9an, Visesak bidali zuen Lurtekeko egindako txostena, ezponda egonkortzeko egindako lanen ingurukoa. Ondoren, 2023ko azaroaren 28an, Visesak lanak amaitu zirela jakinarazi zion Udalari.

2023ko abenduaren 13an, Agustin Larrea geologoak ikuskapen-txostena igorri zuen ezpondaren azken egoeraren berri ematen.

AZTERKETA TEKNIKOA

2023ko abenduaren 26an, udaleko ingeniariak txostena (AA2_0903) egin zuen eta, besteak beste, honako hau jaso zuen:

«1. URBANIZAZIO OBREN ZUZENKETAK

Amarotz urbanizazioan egiteke zeuden jardueren 2020ko proiektuak bi eremutako jarduerak aurreikusten zituen: Frontoia zaharberritzeko lanak eta ezponda egonkortzekoak.

Egindako lanak zenbait akats zuzentzera bideratuta egon arren, ez ziren erabat konpondu eta hori adierazi zion Udalak Visasari. Zehazki, frontoia zaharberritzeko lanak ontzat eman ziren, baina ezponda egonkortzekoak ez. Udalak ezponda inguruko lanak ontzat emateko



hainbat lan eta dokumentu errekeritu zizkion Visesari ekainaren 23an, 1647 Dekretuaren bidez.

Zehazki, ezponda egonkortzeko falta ziren lanak eta Visesak egin behar zituenak hauek ziren:

- Bihurdura hirukoitzeko sareen azpian metatutako materialak kentzea. Askatutako materiala kendu eta sareak berriro jartzean ikusten bada sarea ezpondari behar bezala atxikitzen ez zaiola, beste pika bat jarriko da.
- D gunean, hormigoizko harri-lubeta eraiki den eremuan, 25 mm-ko diametroa eta 4 metroko luzera duen ainguraketa pasiboa jartzea, horizontalarekiko 15°ko inklinazioarekin.
- Granitozko horma-txapela (albardilla) falta den tokitan jartzea.

Gunea ikuskatu zen eta baieztatu da D gunean buloia jarri dela, kapot koipeztuarekin, baita horma-txapela hutsunetan ere.

Lurteken txostenean agertzen dira sare azpian irailean kendutako harrien argazkiak. Gainera, egonkortasun-baldintzen egoera eguneratzen da, A-F guneena, aldaketa nabarmenik gabe. Aipatutako txostenak ondorioztatzen du, besteak beste, ezpondan jarritako euskarria zuzena dela, eta espero bezala funtzionatzen ari dela.

Udalak kontratatutako Agustin Larrea geologoak, azaroaren 1ean egindako ikuskapenean (abenduaren 13ko txostenean islatuta), baieztatu du aurretik adierazitako eta beharrezkoak ziren lan guztiak egin zirela. Gainera, dio Lurtekek txostenean egiaztatu duela egindako finkatze-lanen gauzatzea eta baliozkotasuna. Era berean, gogorarazten du aurreko txostenetan jasotzen den moduan (bai Lurtekenak, bai Geologia y Geotencia Larearenak), ezpondaren mantentze-lanak egin beharko lirartekeela anomaliak saihesteko eta aurreikus-teko.

Hortaz, 2014ko azaroaren 5ean jasotako urbanizazio-obraren zuzenketak guztiz amaitu dira esan liteke.

2. BERMEAK

Lan guztiak amaituta daudenez, Udalak oraindik dituen abal hauek itzul daitezke:

- Abalen Erregistro Bereziko 1584/2010 abala, 216.780,00 €-koa, "20.1 Amarotz paper-fabrika" azpierenmuan hartutako konpromisoei erantzuteko fidantza gisa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160.6 artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Abalen Erregistro Bereziko 2010/1537 abala, 38.770,41 €-koa, "20.1 Amarotz paper-fabrika" azpierenmuan hartutako konpromisoei erantzuteko fidantza gisa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160.6 artikuluan ezarritakoaren arabera.



ruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 158 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Dena den, berme horiek eremu "20.1 Amartz paper-fabrika" azpiero osoaren garapenera lotuta daude. Beraz, UJPren aldaketa eta Kontzertazio Hitzarmen berria onartzeko, oraindik garatzeko falta den urbanizazio faseari dagozkion abalak ezarri beharko dira, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritakoaren arabera.

Horregatik, nahiz eta orain aipatutako bi abalak itzuli, Lurzoruaren Legearen 160.6 artikuluen arabera, oraindik egiteke dagoen hirigintza-kargen zenbatekoaren %7ko beste berme bat aurkeztu beharko da».

Adierazitako aurrekariak zein egindako azterketa teknikoa ikusita, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta

ERABAKI DU

LEHENA.- Ontzat ematea «20.1 Amartz paper-fabrika» azpiesparruan falta ziren urbanizazio lanak, zehazki ezponda egonkortzekoak.

BIGARRENA.- ORUBIDE SA enpresari, 2010eko ekainaren 4an zein azaroaren 11n udalean aurkeztutako BERMEAK ITZULTZEA; hain zuzen, «20.1 Amartz paper-fabrika» azpiesparruan hartutako konpromisoei erantzuteko jarritakoak. Zehazki honako hauek:

- Abalen Erregistro Bereziko 2010/1537 abala, **hogeita zortzi mila eta zazpiehun eta hirurogeita hamar euro eta berrogeita bat zentimo (38.770,41 €)**, Hirigintza Jarduketa Programaren fidantza gisa aurkeztutakoa.
- Abalen Erregistro Bereziko 1584/2010 abala, **berrehun eta hamasei mila zazpiehun eta laurogei euro (216.780,00 €)**, Kontzertazioa Hitzarmenaren onespeneraren fidantza gisa aurkeztutakoa.

HIRUGARRENA.- Ohartaraztea, adierazitako bermeak itzultzea onartzen bada ere, beste berme bat aurkeztu beharko dutela; hain zuzen, Lurzoruari eta Hirigintzari buru-



TOLOSAKO
UDALA

2024IGBA0002

zko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, oraindik garatzeko falta den urbanizazio faseari dagokion urbanizazio-kargen zenbatekoaren % 7koa.

LAUGARRENA.- Erabakiaren berri ematea interesdunari eta Udaleko Kontu Hartzaitza eta Diruzaintza Sailari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 10:45ean.

ALKATEA

IDAZKARIA

Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxe: 943 69 75 10 - e-mail: udate@tolosa.eus
15

www.tolosa.eus

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU9c04b49d-b9de-451c-89b0-5e4e6a1d233b**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IGBA0002-2024-01-16 Gobernu batzarra akta/2024-01-16 Gobernu